



Jai batzordea osatzen duen taldea iazkoaren oso antzekoa da, eta gazteen pisua handitzen doa.

Auzoko jaiak berriro bihurtuko dira oporren osteko elkargune

Ikasturteari ekin aurretik azken jaia zain dute Añorga Txikiko bizilagunek. Ohi bezala, iraileko lehenengoan ospatuko dute asteburu luzeena. Berez, egun bakarreko jaia bada ere, ostiral arratsaldeko zati bat ere hartzen du, hurrengo egunak ekarriko duen guztirako beroketa gisa.

✂ Maitane Aldanondo Gabilondo
📷 Añorga Txikiko jai batzordea

Azterako kontaktetan ia sartuta, irailaren 5era begira, azken ukituekin dabil Añorga Txikiko jai batzordea. Otsail inguruan hasi ohi dira prestatzen, baina udan gauzak «enkistatu» egiten dira. Taldean gehiengoak diren gazteak «oso langileak» direla aitortu arren, bestelako erritmo eta patxada bat dutela uste du Silvia Oseskideak. Alegia, data handiaren gertutasunak gehiago urduritzen dituela beteranoak. Edonola, gazteek protagonismoa eta ardura hartzen joatea nahi dute, baita taldea zabaltzea ere.

«Auzoarentzat eta adin guztietarako» festa izatea dute xede. Ordu gutxitan pilatzen dute dena, baina noizean behin beritasunak barneratzeko aukera ere badute. Aurten, elektrotzaranga izango da. «Arratsalde oso polita gelditu zaigu. Bazkaldu ondoren, jaien aldeko mojitok egingo ditugu berriro, oso harrera ona duen ekitaldia delako; ondoren, Añorgako erraldoi eta buruhandiak ibiliko dira, eta gero, poteoa egingo dugu Ondozik elektrotzarangarekin», azaldu du Osesek. Eguna Olgetan taldearen erromeriarekin amaituko dute, «nahiko goiz», 23:00etan hasita, gazteenek edo familiek ere parte hartzea errazteko.

Lehia, osagai izar

Larunbat goizean, berriz, betikoa: sagardo dastaketa, sardina jana eta patata tortilla txapelketa. Azken horren arrakasta nabarmendu du jai batzordeko kideak. 40 bat lagunek parte hartzen dute, auzo txiki batentzat «pasada bat» da, eta «pike politak» egoten omen dira

Añorga Txikiko jai zoriontsuak opa dizkizuegu!

zenta
MUCHO MÁS QUE UNA ORTOPEDIA
ORTOPEDIA BAT BAINO GEHIAGO

familia barruan eta lagunen artean. Partaideek etxean egindako sorkuntzak eraman behar dituzte lehiaketara eta ondoren, nahi duenak, berea banatzzen du. Bezperan, aldiz, haurrentzako bizkotxo txapelketa aurrera eramango dute. Honen berezitasuna arduradunak nerabeak direla da, 6. maila amaitu eta ikastola bukatu dutenak, zehazki.

Osesen esanetan, auzotarren erantzuna beti da ona. «Abuztuan auzoa nahiko hutsik egoten da, batzuk badoaz, beste batzuk badatoz. Jendeari gustatzen zaio jaia, oporren ondoren elkartzeko unea da, eta gazteentzat azken festa ikasturtea hasi aurretik». Paella jate herrikoia jendetsua izaten da, 250 pertsona baino gehiago elkartzen dira, eta ostiraleko mozerro poteoa ere urtez urte indarra hartzen ari da. Gai zabal baten alde egin ohi dute, mozerro erraza edo landuagoa egiteko aukera ematen duena. Aurten, irudimenaren uretan murgiltzeko aukera emango die itsasoak. «Oso dibertigarria da, jendea gero eta gehiago animatzen baita mozerrotzera. Polita da hori ikustea», onartu du jai batzordeko kideak.

Esku faltan

Hanka-motz gelditzen den zita bakkarra igandekoa da: garbiketa. Egitarauan jasotzeaz gain, antolatzaileek beste behin jendeari dei egin diote laguntzera etor dadin. «Saiatzen gara jendeak uler dezan jaietan ere lana badagoela, eta laguntzea garrantzitsua dela», laburbildu du kideak. ●

OSTIRALA 4

17:30

Txupinazoa, auzoko lokalean.

17:45

Haur jolasak, ikastolako frontoian.

18:30

Txokolate jana eta V. Haurren Bizkotxo Txapelketa, ikastolan.

19:45

Mozorro poteoa, Atotxa Erreka elkartetik. Gaia: *Itsasoa*.

22:00

Mus txapelketa azkarra, Atotxa Erreka elkartearen.

23:00

Talka taldearen kontzertua, frontoian.

01:00

ATA DJ-a, frontoian.

LARUNBATA 5

11:00

Haur jolasak, ikastolako frontoian.

12:00

Sagardo eta sardina dastaketa.

13:00

Patata tortilla txapelketa.



14:00

Sari banaketa.

14:30

Paella herrikoia, frontoian.

15:30

Jaien aldeko bingoa.

16:00

Mojitoak eta musika *tardeoa*, frontoian.

18:00

Añorgako erraldoi eta buruhandiak, ikastolatik.

19:30

Poteo herrikoia Ondozik elektrotxarangarekin, Atotxa Erreka elkartetik.

23:00

Erromeria Olgetan taldearekin.

01:30

Jon & Allende DJ-a, frontoian.

IGANDEA 6

Denok garbitzera.

